## PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

**Departamentua:** 02 - JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA
**Atala:** 0210 - Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusia
**Programa:** 130 - Energia-trantsizioa
**Funtzionala:** 425 - Energia

**Programa mota:**

Finalista

**Misioa:**

Energia-eraginkortasunean eta energia berriztagarrietan oinarritutako energia-eredu jasangarri eta justu baterako trantsizioa ziurtatzea, 2050erako Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategian jasotako neurri guztiak bultzatuz, eta ekintzak eginez bai foru-sektore publikoarentzat, bai beste erakunde publiko batzuentzat, enpresentzat eta herritarrentzat oro har, eta energiaren erabileran genero-desberdintasunak murriztu behar direla kontuan hartuta.

**Egoeraren diagnostikoa:**

Egungo munduan energia eredu jasangarriago barerantz trantsizioa nahitaezko prozesu bat da eta orokorki onartuta dago. Arrazoiak dira, beste batzuen artean, aldaketa klimatikoarena aurkako borroka, energiaren ekoizpenak eta erabilpenak eragiten dituen ingurumen inpaktuen murrizketak, energia hornituraren segurtasunak eta herritarrek energiaren prezioarekiko duten ahuleziaren aurka borrokatzea.
2030 urterako, Europar Batasuneko herrialdeek, besteak beste, konpromiso hauek hartu ditugu: berotegi efektua eragiten duten gasen isurketa % 55 murriztea, energia kontsumoa % 32,5 murriztea, eta kontsumitzen dugun energiaren % 40 energia berriztagarrietatik lortzea (Fit for 55). Helburu horiek lortzen lagundu dezaten dei egin zaie tokiko gobernuei. Egun, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren dependentzia energetikoa %92,82 da, eta etxebizitzen %21,5 pobrezia energetikoko egoeran daude eta egoera horrek bereziki eragiten die emakumeak buru dituzten etxe unitateei, energia-pobreziako egoeran daudenen % 64,5 baitira.
Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere eskumenen arabera, ekarpen handia egin dezake energia-eredu iraunkorra eta bidezkoa lortzeko eta energiaren eremuan dauden genero-arrakalen murrizketan. Ekintza Gipuzkoako 2050eko Jasangarritasun Energetikoaren Estrategian zehaztuta dago, eta energia kontsumitzen duten sektore guztiei zuzenduta dago (bizitegiak, ekoizpen-sektoreak, mugikortasuna eta garraioa, foru eta udal sektore publikoak).

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Gipuzkoan energia berriztagarriaren ekoizpenak barne-kontsumo gordinean duen partaidetzak goranzko joera erakusten du. Beharrezkoa da kuota hori nabarmen igotzen saiatzea, bereziki autokontsumorako sorkuntzari dagokionez, baina kontuan izanda energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko ahaleginak lehenik eta behin egin behar direla. Ildo horretatik, Europako zuzentarauek markatzen dutenetik, Saila lanean ari da. Egindako lan guztiaren artean, azpimarratzekoa da jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa egin dela berriztagarrietatik abiatuta autokontsumorako banatutako sorkuntzaren arloan, eta horrek herritarren energia-komunitateak sortzea ekarri duela (47 komunitate eta 25 karga-zutoin). Era berean, industriako lehen energia-erkidegoak eratu dira. Gainera, COVIDak eraikinen kudeaketan dituen ondorioak (aireztapen-beharrengatik gas-kontsumoa handitzea) oinarri-urtearekin alderatuta (2020an % 12,71ra iritsi zen) Foru Sektore Publikoaren kontsumoaren % murrizketaren balioetan atzerakada bat suposatu zuten arren, efektua iraultzea lortzen ari da eta berriro ere lortutako maximora hurbildu ginen, % 19,15era 2023an. Gas-kontsumoaren murrizketa nabarmenaz gain, sorkuntza fotovoltaikoak gora egin du. Herritarrei eta jardunean dauden profesionalei zuzenean zuzendutako informazio- eta prestakuntza-neurriei dagokienez, Argitu programak legegintzaldi osoan izan duen harrera ona nabarmendu behar da, eta horrek agerian utzi du gipuzkoarrek etengabeko interesa dutela beren ahultasun energetikoa murrizten duten neurriak ikasteko eta txertatzeko.

Eta herritarren eskari gero eta handiagoari erantzunez, jauzi kualitatibo eta kuantitatibo berri bat eman da kontsumitzaileei laguntzeko ereduari dagokionez. Oficina de Tranformación Comunitaria (OTC) Gipuzkoako Energiaren Eraldaketarako Bulegoa (GEEB), Lurralderako energia-kultura berri bat bultzatzera bideratuta dagoena, 559.950,76 euro jaso ditu Espainiako Gobernuaren Next Generation funtsetatik, Berreskuratze eta Erresilientzia Planaren barruan. Zuzendaritzaren proiektu horri esker, Herritarren Energia Komunitateak sustatzen jarraituko da, une honetan Gipuzkoako lurraldearen erdian baino gehiagotan abian jartzeko eta funtzionatzeko fasean baitaude. OTEG Naturklima eraikin berrian kokatzen da, eta 2024an jarri da martxan.

Komunitate energetikoen helburua Gipuzkoako kultura energetikoa sustatzea eta herritarrak ahalduntzea da, horrela eskaria kudeatzeko eta banatutako energia sortzeko eredu energetiko berri baterako trantsizioa bizkortuz, iturri berriztagarrietan eta bestelako laguntza-teknologietan oinarrituta.

**Nori zuzendua:**

GFA, udalak, eskualdeak, komunitateak, etab. Gipuzkoako herritarrak oro har.

**Programaren estrategia.**

**1. Baliabideak (inputak):**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren bitarteko ekonomikoak eta giza baliabideak. Kanpoko kontratazioak. Energiaren kudeaketa integraleko sistema Foru Sektore Publikoan. Monitorizatzeko beste tresna batzuk.

**2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:**

Pobreziari eta ahultasun energetikoari buruzko azterlanak, Gipuzkoako urteko balantze energetikoa, beste azterlan eta txosten batzuk. Argitalpenak eta web-gordailua. Lankidetza-hitzarmenak eta hartzaile-anitzeko dirulaguntzak. Energiaren lurralde-mahaia eta eskualdeko energia-planak. Etxeetan eta saltoki txikietan aurrezteko Argitu programa. Jarduneko profesionalentzako prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa. Birgaitze energetikoko eta instalazio berriztagarrietako proiektuak eta obrak. Gipuzkoako Trantsizio Energetikoaren Bulegoa-Komunitate energetikoak. Foru Sektore Publikoaren Kudeaketa Sistema Integral Energetikoa, Foru Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikorako Batzordea, 4/2019 Legean jasotako betebeharrak betetzea.

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

Kontsumitzaileen profiletara egokitutako informazio- eta bideratze-baliabideak garatzea (dirulaguntzak, informazio-materialak eta -tresnak, monitorizazioa eta orientazioa, jardunaldiak eta tailerrak, mentoringa eta laguntza-prozesuak, etab.). Lurraldeko energia-adierazleak monitorizatzea eta hobetzea (aurreztea, energia-eraginkortasuna eta -intentsitatea hobetzea, berriztagarrien kuota handitzea, lehen mailako ekoizpen berriztagarriak eskari elektrikoan duen partaidetza handitzea, energia-mendekotasuna murriztea). Herritarren ahultasun energetikoa murriztea, sektore kontsumitzaile guztietan. Kontzientziatutako eta ahaldundutako herritarrak, enpresak eta erakundeak.

**Programaren arau esparrua:**

Lurralde historikoen legea. Toki-erregimenaren Oinarrien Legea. Administrazio-legeri orokorra. Kontratazio araudia. 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. 14/2021 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa, Gipuzkoako 2050eko Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia onartzen duena. Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia 2050. 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, EAEko Jasangarritasun Energetikoarena. Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko energia-legeria.
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko araudia: 3/2007 Legea, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako; 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena; 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Gipuzkoako III. Foru Plana 2020-2023

**2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA**

**Urteko helburua:** Enpleguaren kalitatea sustatzen duen ekonomia bultzatzea, enpresen erronkei lerrokatuta eta pertsonen beharrei erantzuten diena.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lanaren ageriko produktibitatea (euro/orduko) | Kopurua | <= | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Dirulaguntza deialdi edota lehiakortasun programetan | Kopurua | = | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| parte hartutako ETE kopurua | | | | | | |

**Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak**

**1. Ekintza lerroa:**
Talentua sortzea, erakartzea, sendotzea eta fidelizatzea eta pertsonen gaitasunak indartzea, besteak beste, proiektu erakargarriak sortuz.

% 100,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **4.394,06** | | | **2025/01/01** | **2025/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Energiaren bekak | 4.394,06 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

**2. Ekintza lerroa:**
Sortzen ari diren sektore berrien inguruko enplegua sustatzea, hala nola ekonomia berdeari lotutakoak.

% 100,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **41.894,06** | | | **2025/01/01** | **2025/12/31** | |
| **2.1 Ekintza**<br>Profesionalen prestakuntza (Usurbilgo Lanbide Eskolaren hitzarmena) | 41.894,06 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

**Urteko helburua:** Ekonomia jasangarria, berdea, deskarbonizatua eta bidezkoa bultzatzea, lurralde estrategia garatuz, 2050. urterako klima neutraltasuna bermatuko duena.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gipuzkoako enpresa sektoreak prozesuen ingurumen hobekuntzetan inbertitutako euroen aldakuntza (%) | Kopurua | = | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Ekonomia berdearen alorrean sortutako enpresa berrien kopurua | Kopurua | = | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

**Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak**

**1. Ekintza lerroa:**

Lurraldeko sektoreen eraldaketa teknologikoa eta energetikoa bultzatzea, deskarbonizazio eta eraginkortasun energetikoko politiken eta planen bidez.

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **763.182,18** | **250.000,00** | **240.000,00** | **2025/01/01** | **2026/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Bero industriala aprobetxatzeko proiektuak sustatzea | 608.788,12 | 100.000,00 | 240.000,00 | 2025/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.2 Ekintza**<br>Azeleratzeko proiektuak: MIKRO SARE ENERGETIKOA ETA 2. BIZITZAKO BILTEGIRATZEA - LIVING LAB ESKUZAITZETA | 154.394,06 | 150.000,00 | | 2025/01/01 | 2026/12/31 | |

**Urteko helburua:** Klima aldaketari aurre egiteko trantsizioak bultzatzea lurraldearen karbono aztarna gutxituz, karbonoa xurgatzeko ahalmena handituz, birziklapena indartuz, energia iturrien erabileran aldaketak sustatuz eta energia berriztagarriak bultzatuz.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Energia berriztagarrien kuota ( %) energiaren azken kontsumoan | Ehunekoa | >= | 10,00 | 19,50 | 20,00 | 38,00 |
| Mendekotasun energetikoaren % | Ehunekoa | <= | 92,85 | 91,00 | 89,00 | 85,00 |
| Lurraldean berriztagarriak sortzea (%) | Ehunekoa | = | 7,18 | 10,00 | 12,00 | 20,00 |
| BEGen murrizketaren % | Ehunekoa | <= | 36,10 | 38,00 | 40,00 | 45,00 |
| Birziklatze tasa (%) | Ehunekoa | >= | 55,00 | 56,00 | 57,00 | 60,00 |
| Energia komunitateen kopurua | Kopurua | = | 51,00 | 60,00 | 70,00 | 94,00 |
| Klima-aldaketaren adierazlea: kt co2 eq | Kopurua | <= | 5.337,00 | 5.100,00 | 4.900,00 | 4.500,00 |

**Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak**

**1. Ekintza lerroa:**

Energia eraginkortasunean areagotzea eta energia berriztagarriak bultzatzen jarraitzea.

% 17,21 % 31,80 % 0,45

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **3.632.884,94** | **600.000,00** | **816.681,00** | **2025/01/01** | **2026/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Energia planifikatzen eta kudeatzen laguntzea eskualdean | 631.364,36 | | | 2025/01/01 | 2025/01/31 | |
| **1.2 Ekintza**<br>Foru Sektore Publikoaren hobekuntza energetikorako proiektu eta obrak | 1.579.327,60 | 500.000,00 | 516.681,00 | 2025/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.3 Ekintza**<br>Inbentarioak, ikerketak, irizpide teknikoak eta energia-jarduketen planak | 45.864,36 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.4 Ekintza**<br>Energia Jasangarriaren eta Pobrezia Energetikoaren Lurralde Mahaia bultzatzea eta foru- eta eskualde-estrategiak koordinatzea | 24.394,06 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.5 Ekintza**<br>Energia kontsumoa monitorizatzea eta kontrolatzea | 20.688,12 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.6 Ekintza**<br>Energia berriztagarrien instalazioen mantenimendua | 74.677,12 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.7 Ekintza**<br>Informazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza - Foru Sektore Publikoa | 16.894,06 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.8 Ekintza**<br>Foru Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikorako Batzordearen Idazkaritza | 4.394,06 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.9 Ekintza**<br>Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia 2050-en jarraipenari buruzko urteko txostena | 30.288,12 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.10 Ekintza**<br>Gipuzkoako urteko Balantze Energetikoa eta lurraldeko beste azterketa energetiko batzuk | 64.682,18 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.11 Ekintza**<br>ENERGIA urteko jardunaldia | 31.982,18 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.12 Ekintza**<br>Gipuzkoako Pobrezia Energetikoaren Behatokia | 63.282,18 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.13 Ekintza**<br>Foralez kanpoko sektore publikoari diru-laguntza ematea energia-eraginkortasunerako eta | 416.364,36 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| berriztagarriak ezartzeko bere instalazioetan | | | | | | |
| **1.14 Ekintza**<br>Beste jarduera batzuk | 608.788,12 | 100.000,00 | 300.000,00 | 2025/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.15 Ekintza**<br>Beste ekitaldi eta kanpaina batzuk | 19.894,06 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

**2. Ekintza lerroa:**

Tokiko energia komunitateak sustatzea, lurraldeko herri eta industrietan energia berriztagarrien sorrera komunitarioa sustatzeko.

7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA % 3,90

9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA % 0,47

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **2.284.481,52** | **373.900,00** | **559.951,00** | **2025/01/01** | **2026/12/31** | |
| **2.1 Ekintza**<br>Azeleratzeko proiektuak: GIPUZKOAKO ENERGIA KOMUNITATEAK (GEK) sortzea eta ENERGIA-KOMUNITATEAK sortzeko laguntza ekonomikoa ematea | 2.168.418,14 | 373.900,00 | 559.951,00 | 2025/01/01 | 2026/12/31 | |
| **2.2 Ekintza**<br>GIPUZKOAKO ENERGIA ERALDATZEKO BULEGOA - Energia-komunitateak sortzen laguntzeko zerbitzuak | 74.699,02 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **2.3 Ekintza**<br>Publikoak ez diren sektoreei diru-laguntza ematea energia-eraginkortasunerako eta berriztagarriak ezartzeko beren instalazioetan | 41.364,36 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

## DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

**Urteko helburua:** Trantsizio energetikoko politiketatik emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzen laguntzea, energiaren eremuan atzemandako genero-arrakalak murriztuz.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Energiari buruzko informazio eta prestakuntza programetan parte hartu duten pertsona kopurua (Argitu eta jardunaldi teknikoak) | Kopurua | >= | 0,00 | 900,00 | 1.000,00 | 4.000,00 |

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumezkoak | | | 0,00 | 400,00 | 500,00 | 2.000,00 |
| Gizonezkoak | | | 0,00 | 500,00 | 500,00 | 2.000,00 |

## Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

**1. Ekintza lerroa:**
Energiaren eremuan atzemandako genero-arrakalak murriztu

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA % 4,61 | 5 GENERO BERDINTASUNA % 27,64 | 7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA % 13,82

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **19.076,24** | | | **2025/01/01** | **2025/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Gipuzkoako pobrezia energetikoari buruzko azterlanetan atzemandako genero-arrakalari garrantzi eta ikusgarritasun handiagoa ematea argitalpenetan eta prentsa-oharretan. | 4.394,06 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.2 Ekintza**<br>Energia gaietan adituen datu-basea ustiatzea eta erabiltzea jardunaldi, ikastaro eta abarretako hizlariak hautatzeko. | 4.394,06 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.3 Ekintza**<br>Kontratu, hitzarmen, beka eta dirulaguntzetan berdintasun-klausulak sartzea, eta, ondoren, emaitzen analisia eta jarraipena egitea. | 4.694,06 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.4 Ekintza**<br>Genero-irizpideak sartzeari buruzko barneko prestakuntza-tailer bat egitea dirulaguntzak, bekak eta kontratuak kudeatzen dituzten teknikariekin. | 5.594,06 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Txikia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Hezkuntza eta ezagutzarako aukera izatea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Energiaren sektorean identifikatutako genero-arrakalen artean, honako hauek nabarmentzen dira: energia-pobreziako arrisku handiagoa (energia-pobreziako egoeran dauden etxeen % 64,5 emakumeak dira buru); emakume profesionalen ikusgarritasun eta parte-hartze txikiagoa energiari buruzko tailer eta jardunaldi teknikoetan (hizlarien % 32 baino ez dira emakumeak); eta, oro har, emakumeen asistentzia txikiagoa energiari buruzko tailer teknikoetan. Tallerretan parte hartzea, gaika bereizita dago, eta handiagoa da energiaren eta zaintzaren arloko tailerretan, eta askoz txikiagoa energia berriztagarrietan, ibilgailu elektrikoetan edo energia-komunitateetan.

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 19.076,24 | ( % 0,24 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 19.076,24 | ( % 0,28 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| **Go.HO.4.1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eta Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei zuzendurik, oinarrizko trebakuntza, espezifikoa eta espezializatua bermatzeko bide bat inplementatzea.** | **Go.4.1.3. GFAko teknikariak trebatzea arloetako politiketan eta administrazio prozedura arruntetan genero ikuspegia progresiboki inplementatu ahal izan dezaten (formakuntza espezifikoa).** | **( % 100,00 )** | |
| **Go.HO.5.4. GFAren kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan berdintasun klausulak sistematikoki txertatzen jarraitzea eta haien gaineko jarraipena egitea, eraldatzeko duten ahalmena aztertuz (kalitaea eta eragina).** | **Go.5.4.2. Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan jasotako berdintasun klausulak betetzen diren eta hirugarren entitateek betetzen dituzten jakiteko ebaluazio eta jarraipen lanak egiteko metodologia lantzea.** | **( % 100,00 )** | |
| **Ek.HO.12.2. Gipuzkoan txirotasunaren feminizazioa murrizten jarraitzea.** | **Gipuzkoako pobrezia energetikoari buruzko azterlanetan atzemandako genero-arrakalari garrantzi eta ikusgarritasun handiagoa emanez argitalpenetan eta prentsa-oharretan.** | **( % 100,00 )** | |
| **Ek.HO.10.2. Bizitzaren esparru guztietan emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien rol eta estereotipoen hausturan aurrera egitea.** | **Energia-gaietako adituen datu-basea erabiliz, jardunaldietako, ikastaroetako eta abarretako hizlariak hautatzerako orduan.** | **( % 100,00 )** | |

## HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Programa honek bi atal nagusi ditu: bat herritarrei eta udalei zuzendutakoa eta bestea Aldundiko eraikin eta instalazioen eraginkortasun energetikoa hobetzeko proiektuak gauzatzea. Lehenengo atalera zuzendutako ekintzetan zerbitzu hizkuntza atala landuko da bereziki, bi hizkuntza ofizialen erabilera aldez aurretik planifikatuz, pertsona guztien hizkuntza-eskubideak bermatzea bilatuz. Bigarrenean berriz, enpresen kontratazioetan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haiek betetzen diren jarraipena egingo da.

| Kategoria | Nola |
| --- | --- |
| 8.- Herritarrekiko harremanak | Jardunaldietan bi hizkuntz ofizialen erabilera orekatua egingo da. |
| | Edukiak euskaraz gehiago ematea |

## GJH

**Beharraren deskribapen xehatua:**

130 programak ekarpen zuzena eta espezifikoa egiten dio 7. GJHri (Energia eskuragarria eta ez kutsatzailea). Eredu energetikoaren aldaketa ezinbesteko elementua da klima aldaketaren aurka borrokatzeko; beraz, programa honetan jasotako ekintzek 13. GJHri (Klimaren aldeko Ekintza) ere ekarpena egiten diote.

**Kuantifikazioa:** 2.264.696,96 ( % 28,63 )

## Programari lotutako GJH zerrenda

| GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|---|
| | 4-Kalitatezko hezkuntza<br><br>Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea. | **878,81** | |
| **Helburua** | 4.7 - 2030. urterako, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza aberatsak eta praktikoak eskuratzen dituztela bermatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarrietarako hezkuntzaren, giza eskubideen, genero berdintasunaren, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzearen, mundu mailako hirigintzaren eta aniztasun kulturalaren eta kulturaren garapenerako hezkuntzaren bitartez. | 878,81 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Energiaren eremuan atzemandako genero-arrakalak murriztu | 878,81 | |
| | 5-Genero berdintasuna<br><br>Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea. | **638.349,11** | **100.000,00** |
| **Helburua** | - Teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, bereziki, informazioaren eta komunikazioen teknologiarena, emakumeen ahalduntzea sustatzeko | 628.682,18 | 100.000,00 |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Energia eraginkortasunean areagotzea eta energia berriztagarriak bultzatzen jarraitzea. | 628.682,18 | 100.000,00 |
| **Helburua** | 5.5 - Emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, baita lidergoko aukera-berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko maila erabakitzaile guztietan | 2.636,44 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Energiaren eremuan atzemandako genero-arrakalak murriztu | 2.636,44 | |
| **Helburua** | 5.a - Emakumeei baliabide ekonomikoetarako eskubide-berdintasuna eta lurraren jabetza eta kontrolerako eta ondasunak, finantza-zerbitzuak, herentzia eta natura-baliabideak eduki ahal izateko eskubide-berdintasuna ematen dieten erreformei ekitea, lege nazionalekin bat etorriz | 7.030,50 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |

| GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|
| Talentua sortzea, erakartzea, sendotzea eta fidelizatzea eta pertsonen gaitasunak indartzea, besteak beste, proiektu erakargarriak sortuz. | 4.394,06 | |
| Energiaren eremuan atzemandako genero-arrakalak murriztu | 2.636,44 | |
| 7-Energia irisgarria eta ez kutsagarria<br><br>Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat. | **1.494.065,67** | |
| **Helburua** 7.1 - 2030. urterako, energia-zerbitzu arrazoizko, fidagarri eta modernoetarako sarbide unibertsala bermatzea | 283.556,25 | |
| **Ekintza lerroak** | | |
| Energia eraginkortasunean areagotzea eta energia berriztagarriak bultzatzen jarraitzea. | 244.449,11 | |
| Tokiko energia komunitateak sustatzea, lurraldeko herri eta industrietan energia berriztagarrien sorrera komunitarioa sustatzeko. | 37.349,51 | |
| Energiaren eremuan atzemandako genero-arrakalak murriztu | 1.757,62 | |
| **Helburua** 7.2 - 2030. urterako, energia berriztagarrien proportzioa nabarmen handitzea energia iturrien multzoan. | 804.237,53 | |
| **Ekintza lerroak** | | |
| Sortzen ari diren sektore berrien inguruko enplegua sustatzea, hala nola ekonomia berdeari lotutakoak. | 20.947,03 | |
| Energia eraginkortasunean areagotzea eta energia berriztagarriak bultzatzen jarraitzea. | 738.933,37 | |
| Tokiko energia komunitateak sustatzea, lurraldeko herri eta industrietan energia berriztagarrien sorrera komunitarioa sustatzeko. | 44.357,13 | |
| **Helburua** 7.3 - 2030. urterako, Gipuzkoako efizientzia energetikoa bikoiztea. | 406.271,89 | |
| **Ekintza lerroak** | | |
| Sortzen ari diren sektore berrien inguruko enplegua sustatzea, hala nola ekonomia berdeari lotutakoak. | 20.947,03 | |
| Energia eraginkortasunean areagotzea eta energia berriztagarriak bultzatzen jarraitzea. | 362.498,62 | |
| Tokiko energia komunitateak sustatzea, lurraldeko herri eta industrietan energia berriztagarrien sorrera komunitarioa sustatzeko. | 21.947,43 | |
| Energiaren eremuan atzemandako genero-arrakalak murriztu | 878,81 | |
| 9-Industria berrikuntza eta azpiegiturak<br><br>Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea. | **12.409,31** | |
| | | |

| GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|---|
| **Helburua** | 9.4 - 2030. urterako, azpiegiturak modernizatzea eta industriak eraldatzea, jasangarriak izan daitezen. Horretarako, eraginkortasun handiagoko baliabideak erabili behar dira eta teknologia- eta industria-prozesu garbiak eta ingurumenaren ikuspegitik arrazoizkoak erabiltzen direla bermatu behar da, eta herrialde guztiek dagozkien ahalmenen araberako neurriak har ditzatela lortu behar da | 12.409,31 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Tokiko energia komunitateak sustatzea, lurraldeko herri eta industrietan energia berriztagarrien sorrera komunitarioa sustatzeko. | 12.409,31 | |
| 16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK | 16-Bakea, justitzia eta instituzio sendoak<br><br>Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan. | **18.994,06** | |
| **Helburua** | 16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan | 18.994,06 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Energia eraginkortasunean areagotzea eta energia berriztagarriak bultzatzen jarraitzea. | 18.994,06 | |
| **Guztira** | | **2.164.696,96** | **100.000,00** |

## PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

| Gastuen kapituluak / Capítulos gastos | 2024 | 2025 | Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2026 | 2027 | 2028 | 2029 eta hurrengoak/ 2029 y siguientes | Guztira / Total |
| 1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL | 367.663,00 | 439.406,00 | | | | | |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 322.517,00 | 860.620,00 | 373.900,00 | | | | 373.900,00 |
| 3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 995.000,00 | 1.145.000,00 | 150.000,00 | | | | 150.000,00 |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | **1.685.180,00** | **2.445.026,00** | **523.900,00** | | | | **523.900,00** |
| 6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES | 4.573.961,95 | 2.739.387,00 | 700.000,00 | | | | 700.000,00 |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | 1.148.472,00 | 1.561.500,00 | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | **5.722.433,95** | **4.300.887,00** | **700.000,00** | | | | **700.000,00** |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **7.407.613,95** | **6.745.913,00** | **1.223.900,00** | | | | **1.223.900,00** |

| Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos | Ordainketa kredituak / Créditos de pago | | Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros | | Guztira / Total | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo |
| 1. LANGILERIA GASTUAK<br>GASTOS DE PERSONAL | 421.829,76 | 17.576,24 | | | 421.829,76 | 17.576,24 |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK<br>GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 859.120,00 | 1.500,00 | 373.900,00 | | 1.233.020,00 | 1.500,00 |
| 3. FINANTZA GASTUAK<br>GASTOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 1.145.000,00 | | 150.000,00 | | 1.295.000,00 | |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA<br>FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira<br>Total operaciones corrientes** | **2.425.949,76** | **19.076,24** | **523.900,00** | | **2.949.849,76** | **19.076,24** |
| 6. INBERTSIO ERREALAK<br>INVERSIONES REALES | 2.739.387,00 | | 700.000,00 | | 3.439.387,00 | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | 1.561.500,00 | | | | 1.561.500,00 | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira<br>Total operaciones de capital** | **4.300.887,00** | | **700.000,00** | | **5.000.887,00** | |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK<br>ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK<br>PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira<br>Total operaciones financieras** | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **6.726.836,76** | **19.076,24** | **1.223.900,00** | | **7.950.736,76** | **19.076,24** |

| Sarreren kapituluak / Capítulos de ingresos | 2024 | 2025 | Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto |
|---|---|---|---|
| 1. ZUZENEKO ZERGAK<br>IMPUESTOS DIRECTOS | | | |
| 2. ZEHARKAKO ZERGAK<br>IMPUESTOS INDIRECTOS | | | |
| 3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK<br>TASAS Y OTROS INGRESOS | 20.000,00 | 20.000,00 | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES | | | |
| 5. ONDARE SARRERAK<br>INGRESOS PATRIMONIALES | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira<br>Total operaciones corrientes** | **20.000,00** | **20.000,00** | |
| 6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA<br>ENAJENACION DE INVERSIONES REALES | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | 879.667,00 | 1.616.632,00 | 1.616.632,00 |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira<br>Total operaciones de capital** | **879.667,00** | **1.616.632,00** | **1.616.632,00** |
| 8. AKTIKO FINANTZARIOAK<br>ACTIVOS FINANCIEROS | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK<br>PASIVOS FINANCIEROS | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira<br>Total operaciones financieras** | | | |
| **Guztira / Total** | **899.667,00** | **1.636.632,00** | **1.616.632,00** |